


EUROPAKO HERRIAK



Bretainia kondaira, misterio eta historia bitxi ugari ezkutatzen dituen lurraldea da. Hauxe da Asterixen eta Obelixen lurraldea. Erromatarrek sekula garaitu ezin izan zuten Galia herrixka ere Britainian zegoen.

V. mende arte, Armorika izena zuen eskualdeak. V-VI. mendeetan, Britaniar uharteetako hego-mendebaldean zeuden bretoiek anglosaxoien erasoetatik ihes egin behar izan zuten. Itsasoa zeharkatu, eta Frantziako ipar-mendebaldean kokatu ziren. Bretoiek eurekin ekarri zituzten euren hizkuntza eta ohiturak ere. Hala, ordu arte Armorika izena zuen eskualdeak Britainia izena hartu zuen.

845. urtean, Nominoe buruzagiak Britainiako independentzia lortu zuen. 939. urtean, Britainia dukerri bihurtu zen. 1514an, Enrike II.ak Frantziako tronua eskuratu, eta Britainia Frantziaren menpe jarri zuen. Frantziako Iraultzaren garaian, Britainiak ez zuen Frantziako batasuna onartu. Harrezkero, borrokan ari da Britainia burujabetza eskuratzeko. XX. mendean, mugimendu abertzaleak indar handia hartu du.

Carnac, historiaren lekuko

Gaztelu ugari, hondartza zabalak, monumentu esanguratsuak eta hamaika leku eder bisita daitezke. Bretoiek bitan banatzen dute lurraldea: kostaldeari, Armor izena ematen diote; eta barrualdeari, berriz, Argoat. Kostaldean, bada ezinbestean bisitatu beharreko lekua: Carnac. Bertan, biztanle primitiboen aztarna ugari topa daitezke. Orotara, tamaina anitzetako 3.000 bat menhir daude zutik. Lau multzo handitan sailkatuak daude. Harri handiena Lokmariaker herrian den 20 metro luzeko *Menhir Handi Hautsia* da.

Harri handi horiek zergatik altxatzen zituzten ez da guztiz argitu. Aspaldiko sinesmen batek dio Jainkoak harri bihurtu zituen soldadu erromatarrek direla. Harriek botere handiak omen dituzte; gaixotasunak sendatzen dituztela edo bikotea aurkitzen laguntzen dutela esaten da. Menhirrak gudu handiren bat oroitzeko, edo eguzkia eta ilargia gurtzeko jarri zituztela dioten esanik ere bada. Zein ote zen benetako arrazoia? Hori harriek bakarrik jakingo dute!

Literaturaren zati garrantzitsuena herri kantuak, ipuinak eta kondairak osatzen dute. Ohitura, abesti eta herri kontakizun asko gordetzen dira bretoien artean. Oso ospetsu eta esanguratsuak dira bertako jantzi koloretsuak. Bretoien gaita, akordeoi txikia, flauta, biolina eta bonbarda dira bertako musika tresna nagusiak. Ohituren artean, aipagarria da Fest-Noza. Musika tresna tradizionalak eta abesti zaharrez lagundurik, borobilean egiten diren dantzaldiak dira.

Gastronomia aldetik ere lurralde aberatsa da. Ardiak itsas bazterreko belatzeetan edukitzen dituzte urak gazitutako belarra jaten, ondoren, esne gaziago eman dezaten. Esne horrekin egiten dute gurin gazia ohiko jakia da. Horrez gain, jaki ezagunak dira krepak (bretoieraz *kranpouez*), *gallette*-ak edo mariskoa. Edarien artean aipatzekoa da sagardoa eta *chouchen* ura eta ezti fermentatuarekin egiten den likore gozoa.

Britainia aberastasun handia eta historia luzea ezkutatzen duen lurraldea da, beraz.

Britainia

Magiaz beteriko herrialdea

Kondaira, sinesmen eta mito ugari daude Britainian. Carnac-eko harri megalitikoaren alboan, Broceliand-eko basoak eta beste hamaika paisaiak euren sekretuak ezkutatzen dituzte

FITXA

- ♦ **Kokapena:** Frantziako ipar-mendebaldeko eskualdea da. Cotes-d'Armor, Morbihan, Ille-et-Vilaine eta Finistère departamensuez osatua dago.
- ♦ **Hiriburua:** Rennes.
- ♦ **Hedadura:** 27.506 kilometro koadro.
- ♦ **Biztanle kopurua:** 2.886.400 bretoi.
- ♦ **Hizkuntza:** Bretoiera.
- ♦ **Ekonomia:** kostaldean arrantza, arrain kontserba eta turismoa, nagusiki. Barnealdean, berriz, abeltzaintza, basogintza, industria eta burdin eta beruneko meategiak.

